

04

2020ko urtarrila

A
alea



IRAKURGAIAK



Aitor eta Galder gazte auzipetuen inguruan Julen Arzuagak idatzitako artikulua.
naiz.eus/eu/iritzia/articulos/la-espada-y-la-balanza



Mikel Urabaienen artikulua, 5G teknologiarik kritika egiten dio ikuspegi ekologistatik.
elsaltodiario.com/5g/mienteme-5g-malo



Amaia Bacigalupe soziologoari Berria egindako elkarrizketa, COVID-19aren pandemiak sortutako ondorio sozialak aztertzen ditu.
berria.eus/paperekoa/1899/008/001/2021-01-03/mezua-hain-da-sinplea-gizarteari-ez-dio-uzten-komplexutasunik-garaten.htm



Nuria Alabaok eskuin muturrak eta sektore kontserbadoreek feminismoaz egiten duten erabilpena azaltzen du artikuluan.
ctxt.es/es/20210101/Firmas/34790/Nuria-Alabao-feminismo-extrema-derecha-antifacismo.htm



Donostiako alde zaharreko azken asteetako gertaerak eta gazteon kriminalizazioa hitz egiten du June lartzak artikuluan.
irutxulo.hitza.eus/generoak/iritziak/gazteok-ez-gara-zuen-gestio-txarraren-erantzule/



GOMENDIOAK



Argiak Beñat Irasuegiri egindako elkarrizketa. Ekonomia sozial eraldatzaitetik eta interkooperaziotik krisi honi aurre egiteko tresnak eta kapitalismoari alternatibakazaltzen ditu.
youtube.com/watch?v=gdea_VN_aVc&feature=emb_logo



Arduraz Komunika Dezagun dokumentala. Euskal Herriko herri hedabideetan egiten den hizkuntzaren erabileraren inguruko gogoeta planteatzen du. Horretarako, hainbat emakume kazetari elkarrizketatu dira.
youtube.com/watch?v=ta_fkocByxg&feature=emb_logo



New LeftReviewren "Decrecimiento vs Green New Deal" liburuxka. Bi ikuspegiaren artean eztabaidatzen da autore desberdinen artikuluen bitartez.
traficantes.net/sites/default/files/pdfs/documentos_nlr_5_web.pdf



Carlos Fernandez Liria filosofoak kapitalismoa aztertzen eta egungo egoeraz hausnartzeko egindako bideo sorta. Estekan lehenengo kapitulua.
youtube.com/watch?v=ILuCRcRfC-g



Lorea Agirre eta Idurre Eskisabelen Trikua esnatu da liburua. Euskalgintzaren eta feminismoaren arteko gurutzaketa eta aliantzarako bideak arakatzeko dira.
txalaparta.eus/eu/liburuak/trikua-esnatu-da

Pripua

2021eko urtarrila Covid19aren aurkako txertoaren hilabetea izan da, eta 0,45 mL-ko vialetan hainbat gauza ikusteko gai izan gara.

Ikusi dugu txertoaren aurkako kanpainarik. Txertoak Bill Gatez, George Soros eta abarrak aberastuko dituela eta, txertoaren aurkako mesfidantza elikatzen duten posizio ustez erradikalak

edo kritikoak azaldu dira (bestelako konspirazioen teorietan sartu gabe). **<<Prozesua azkartzearen aldeko jarrera izan behar dugu, ezkerretik denontzat bizigarria den bizitza baten alde bagaude>>**

Zoritxarrez Bill Gates, George Soros eta abarren plan bat baino, bizi gaituen sistema beraren isla da txertoarekin gertatzen ari dena; eta horregatik, txertatzeari buruzko posizioak erlatibizatzea arrazoiak eta ondorioak nahastea da. **Txertoa produzitzeko prozeduren azkartzeak sor ditzakeen kezka aintzat hartuta, zaila iruditzen zait txerto bat merkaturatzeko erabakia hartzea laborategi batek munduko populazioaren zati handi bat kaltetzeko arriskua esanguratua bada; eta ez naiz etikaz ari, ez deritzot negozio ona izango luketenik.**

Gaur gaurkoz txertoa da pandemia honi aurre egiteko dugun aukera, eta aukera hau kolektiboa izan behar da. Honek garrantzi berezia hartzen du klase sozial apaleko pertsonon kasuan, gu baikara kutsatze tasa altuenak ditugunak, eta isolamendu neurriak betetzeko baldintza okerrenak ditugunak: etxe txikiak, lan prekarioak, babes ekonomiko eza, zaintza lanak erosteko ezintasuna, guzti honi loturiko kezka eta estresa... Baita egoera honen luzatzearen ondorio ekonomiko eta

0,45 ML-KO VIALETAN

Iratxe Delgado



sozialak gogorren pairatuko ditugunak, bereziki gazteak. Horregatik, **txertoa jasotzen azkenak izango**

garen arren, prozesu hau azkartzearen aldeko jarrera argia izan behar dugu gazteok. Gure burua ezkerrekotzat baldin badugu eta denontzat bizigarria den bizitza baten alde bagaude bederen.

Eta horrek ez du esan nahi txertoaren produkzio eta txertaketa prozesuen defentsa itzua egiterik. Izan ere munduko populazioaren osasuna enpresa pribatu batzuen esku egoteak ez dirudi zentzuduna, eta ez dirudi eztabaida honek oihartzunik duenik. 2020ko urte amaieran munduko herrialde aberatsenek uko egin zioten pandemiak irauten duen bitartea txertoaren gaineko patenteak deuseztatzeari. Jakin berri dugu Pfizerrek vial gutxiago banatuko dizkiela EBko herrialdeei prezio berran, vial bakoitzetik dosi gehiago (5 beharrean 6) ateratzeko gai izan beharko ginatekeelako; hori bai, badezpada euren etekinak bermatuta. Urte luzez ikerketa zientifiko eta ekoizpen farmazeutiko pribatua bultzatzeak eta garapen publiko eskasak pandemia honi aurre egiteko tresna nagusia ekoizteko tresna gabe utzi gaitu. Aipatu gabe **ikusten ari garen txertoaren kudeaketa txantxulleroa: jauntxokeriaz dagokiena baino lehen txertatzen ari direnak, eta baliabide faltagatik txertaketa atzeratzen ari diren ospitaleak.**

0,45 mL-ko vialetan gauza asko ikusi ditugu, baina beste hainbat ezkutuan geratu dira. Begiratu diezaiogun vialetan dagoenari, gordetzen denari eta kanpo geratzen denari.



Gazteoi ezinezkoa zaigu bizitzak erdigunean jartzea eta bizitzak bizigarri egitea. Neoliberalismoak ikaragarriko indibidualizazio eta pribatizazio eredu batera eramaten bagintuen, **pandemia honen izenean hartutako erabakiek prozesu hori bizkortu eta indibidualizazio eta pribatizazio basatietara eramaten gaituzte.**

Gaztaroan gure sozializazio prozesuak azkartu eta indartu egiten dira. **Momentu garrantzitsuak bizi ohi ditugu gure identitateak eraikitze eta gure harreman** egiturak (sareak) eraikitze. Baina honetarako beharrezkoak zaizkigu sozializatorako espazio eta denborak. Hain zuzen ere, gaur egun lapurtu zaizkigunak.

Identitate aske, ez normatibo eta anitzak eraikitze beharrezkoak zaizkigu harremanak, eta bereziki harreman autogestionatuak. Sistemak eskaintzen dizkigun instituzio horietatik kanpo (familiatik eta eskolatik kanpo) eraikitako harremanak, elkar ezagutzak eta sareak. Beharrezkoak zaizkigu eredu eta kolektibitate anitzak. Eta eredu hauen inguruan jabe izan eta horiek esploratzeko denbora eta espazioak beharrezkoak dira. Gaztaroa gure sareak eraikitze momentu garrantzitsua da. Norbanakoen beharrak ezin dira modu indibidualean asetu. Honez gain, gure beharrak, guztion beharrak, ezin dizkigu sistema kapitalista heteropa-

triarkal honek eskaini. Sistema publikoak behar jakin batzuk asetu behar dituen arren,

<< Beharrezkoa zaigu komunitatea eta bertatik harreman egitura solidoak eraikitzea >>

beharrezkoa izango dugu, komunitatea beste hamaika beharrei erantzuteko. Beraz, **beharrezkoa zaigu komunitatea eta bertatik harreman egitura solidoak eraikitzea.** Bakarrik ezin ditugu eta bizi proiektuak eraiki. Menpekotasunak sortuko ez dituzten egiturak sortu behar ditugu eta honetarako elkarrekin asetu behar ditugu norbanako zein gure gizartearen beharrak.

Bizirauteko zainduak izan behar gara eta beraz, zaindu behar dugu. **Baina bizitzak bizigarri izateko kalitatezko zaintza behar dugu.** Eta zaintza hau modu kolektiboan bermatu behar dugu. Gazteok ere zainduak izan behar gara; baina zaintza, eredu asistentzial batetik haratago ulertu behar dugu, eta zaintza behar guzti hauek bermatzeko modu bakarra sareak eraikitzean eta zaintza behar hauek modu komunitario batean egitea da. Sistema publikoak duen ardura kendu gabe.

Kapitalismo heteropatriarkalak eskaintzen digun ereduak, ezin gaitu zaindu guztiok. Batetik,

zaintza pribatizatzen delako, baina baita sortutako egiturak eredu likido eta familia hete-

ro-nuklearretan oinarritzen direlako ere; menpekotasun harremanak dituzte muinean. **Gure harreman egiturak eraikitze eta gure identitatea eraikitze sozializazio espazioak beharrezkoak ditugu.** Eta berauek lapurtu dizkigute. Espazio publikoa mugatua dugu eta espazio pribaturik ez dugu. Nun eta noiz harremanduko gara?

Sozializazio prozesu bizigarriak behar ditugu, guztion gozamenen eta disfrutean oinarritutakoak. Baina ez dugu



denborarik honetarako (lan edo ikasten pasatzen dugu kalean egon gaitzkeen denborarik gehiena). Eta ez dugu espaziorik, izatez gazteok ez dugu espaziorik eta gainera genituen apurkak itxi dizkigute.

Harremantzeko eta sozializatze zirkuituak bilatu arren, ikaragarrikoa da gazteok jasaten dugun kontrol soziala. Izan familian, izan lagunartean... **Beldurra barruraino sartu digute eta sistemak lortu du ikaragarriko kontrol soziala indartzea. Indar poliziala baino eraginkorragoa bilakatu da gure arteko kontrola. Errua nagusitzen da.** Errudun ez sentitze dugun aukera bakarra ikasi edota lan egitea da. Inorekin egon gabe, familia nuklearrekin bakarrik; gure errua litzateke edozein kutsatzea eta.

Eskola edota lan espazioetan ere sozializazio esparruak kendu dizkigute. "Baimenduta" zaizkigun espazioetan ere, sozializaziora bideratutako denbora apurra lapurtu digute. Helburu argia dute: harremanak mugatu nahi dizkigute.

Urte luzetan sistemak inposaturiko identitate eredu zein harreman eredu aurre egiten jardun dugu gizarte bezala. Kolektibitatean, elkarlaguntzan

<<Ezin ditugu gure sozializazio prozesuak, identitateen eraikuntzak eta gure kulturak, sistema heteropatriarkal kapitalistaren eskuetan utzi >>

eta saretzean oinarritutako praktika ezberdinek egiten dute gure kultura, herri kultura ezberdinak garatu ditugu, eta baita gazte kultura ezberdinak ere. Kultura propioek identitate anitzak (ez nahi beste)



garatzen lagundu digute. **Baina urtebetean gure hamaika jardun eta praktika normalizatu (saretzean eta komunitatearen zaintzan oinarritzen zirenak), bertan behera geratzen ari dira. Eta honek, kulturak aldatzea ekarriko du, batez ere gazte kulturak, oso ziklo motzekoak baitira.**

Bizitzak erdigunean jartzeko beharrezkoak ditugu harreman eta zaintza egitura kolektiboak eraikitzea eta horretarako beharrezkoak zaizkigu balore komunitarioak, zeintzuk praktika batzuen bidez transmititzen diren.

Beraz, joan gaitzen sare hauek sortzen, harremantzeko espazioak irekitzen. Lana egin eta ikasteaz gain, bizitza bizigarri egiteko elkar ekintza gozagarriak topatzen. **Bizitzak erdigunean jarri behar ditugulako eta**

bizitzak bizigarri egin behar ditugulako, pribatizazio eredu horietatik at beharrezkoa da alternatibak sortzea.

Sozializazio espazio aske, anitz eta berdinak indartzera. **Harreman likidoen aurrean harreman solidoak eraikitzea, elkar zaintzeko mekanismoak sortzea. Eta menpekotasun harremanen aurrean, harreman berdinzale eta kolektiboak indartzera.**

Gai izan gara orain arte, sistemak eskaintzen dizkiguten eredu horietatik at, beste eredu batzuk indartzeko. Beraz orain, **inoiz baino gehiago, ezin ditugu gure sozializazio prozesuak, identitateen eraikuntzak eta gure kulturak, sistema heteropatriarkal kapitalistaren eskuetan utzi.** Eta beraz, goazen, bizitzak erdigunean jarri ahal izateko, komun eta kolektibitatean oinarritutako sozializazio prozesuak indartzera, identitate anitz eta askeak eraikitzea eta gure kulturak burujabetzen bidean kokatzera.

Andoni Mikelarena



Goizeko 07:00ak. Iratzargailua hasi da goize-roko erritualarekin. Ahal den moduan ohetik jaiki eta momentu horretan jasanezinak diren soinu eta argiak itzaltzeko hartu duzu telefono mugikorra. Ohean etzan zara berriz ere, baina oraingoan, mugikorra eskuan duzula. Eta eguna ondo hasteko, begiratu bat botatzen hasi zara, lo zeunden bitartean sare ezberdinetan egon diren gora beherei. Munduak berdin jarraitzen du, baina hala ere, nahiko entretenimendu eskaintzen du pantailak zenbait minutu hari begira pasatzeko. Ohartzerako denbora aurrera doa. Ez dakizu nola, baina gaur ere, Instagramen algoritmoak bere zuloan harrapatu zaitu. **Ez da ausazko ondorioa, matematika da. Gure denbora, gutxi batzuentzat errentagarri egiteko matematika psikosoziala.**

Ohetik jaiki eta pertsiana altxatu duzu. Lainotuta hasi da eguna. Eta badaezpada, jantzi aurretik, egunak ze bilakaera izango duen begiratu duzu, eguraldiaren iragarpenak eskaintzen dituen aplikazioan. Lainoan, lainoen bilakaerari begira. Izan ere, lainoa ez omen da bakarrik zeruan aurki dezakegun gorputz meteorologiko hori. **Internetari ere lainoa deitzen diote batzuek. Borroka politikorako erabiltzen diren kontzeptuak. Politikoak izan arren, neutraltasunaren izenean normalizatzen ditugunak. Lainoa deitzen diote, lainoa ezin delako ikutu, moldatu edota ez duelako jaberik. Baina sareak, internetak, baditu jabeak. Eta jabe horiek aberasteko etengabeko interakzio eta datu uholdea sortzen dugun langile digitalak.** Datuak ez baitira lainoan pilatzen, beste baten ordeinagailuan baizik. Eta horiek erabiliz, salduz, aberasten dira gutxi batzuk. Ez da kasualitatea, 2020an munduko bi pertsona aberatsenak, Jeff Bezos eta Bill Gates hurrenez hurren, Amazon eta Microsoften jabeak izatea. Dtxatu, arropak jantzi eta gosalt-

<<Gure denbora, gutxi batzuentzat errentagarri egiteko matematika psikosoziala>>

zera joan zara. Denboraz larri zabilta. Goizeko 08:30etan hasten dira klaseak. Kafea hartu eta berriz ere, eguna abiatu duzun logelara itzuli zara. Ordenagailua piztu, logela erdi txukun daukazula ziurtatu (bai behintzat ordenagailuaren kamerak harrapatzen duen eremua) eta bideo dei bidezko klaseak jarraitzeko unea hasi da. Pantailari begira igaroko dituzu datozen orduak. Mugikorra alboan, whatsapp eta enparauen orrialdeak ordenagailuan irekita eta tonoa aldatzen ez duen irakaslearen azalpenak entzuten ari zarenaren plantak egin behar. Bitartean, **interakzioak ez du etenik.** Orduak aurrera jarraitzen dute eta ezer ez eginaren sentsazioak harrapatu zaitu gaur ere. Eguneroko zurrumbilao, eguneroko laino beltzak.

Pentsa zenbat aldatu den gazteon egunerokoa urte gutxitan. Eta pentsa, zenbat aldatuko den datozen urteetan. Gure bizitzen digitalizazioa hasi besterik ez baita egin. **Robotizazioa, automatizazioa, inteligentzia artifiziaia, mundu berri baten oinarrian daude. Eta bestelako munduen alde egunerokoa borrokan ari garen, pertsona, talde eta erakundeek ezin diegu muzin egin aldaketa hauei. Aldaketak ulertu eta helburu berdinezale eta askatzaileei erantzun diezaieten borrokatu behar dugu. Plataforma kapitalisten menpeko baino, gure beharren neurrira eraikitako plataforma kooperatibo askatzaileak sortuz.**



Sortraireen plaza

HONDAMENDIARI ERRIMAK

Irune Basagoiti

Eitzakoak eragin
du zalaparta handia
Ze baldintzatan egon da
bertako langileria?
Diru gosearengatik
dena al da zilegia?
Betikoentzat dirua
betikoen miseria
Nahiz ezkutatzen saiatu
gizarteari egia
Edonondik ikusten da
Verterren ustelkeria
Lurra mugitu ta behera
etorri arren mendia
Sistema oso bat jausi zen
ez soilik zabortegia.

Doinua: Habanera